

GAINDEGIAREN PRENTSA OHARRA (2013-01-24)

Gaindegiak, Euskal Herriko egoera ekonomiko eta soziala ezagutzera eman eta gogoeta eragin nahian zure esku jartzen du langabeziaren azken lau hilabetetako datua estatistika institutu nagusiek eman berri dituzten indizeetan oinarriturik. Ipar Euskal Herriari dagokion datua estimazioa da.

Azpitarratzekoa da zer-nolako desberdintasuna dagoen EAE-ri dagokionez EUSTAT eta INEK ematen dituen datuen artean. Hegoalderako INE denez oinarri bateratuko datuak eskaintzen dituen bakarra, beronek eskaini berri duen datua lehenetsi dugu kalkulu hau egiterakoan, edonola ere bi erakundeen erreferentziak eskaintzen dizkizuegu.

EUSKAL HERRIKO LANGABEZIA, 2012ko LAUGARREN HIRUHILEKOAN

>>2012 urteko laugarren hiruhilabeteko langabezia tasa 15,7 puntukoa izan da , inoizko altuena. Orotara 229.555 langabetu.

>>2012an batz besteko langabezia 14,8koa, Irlandaren parekoa

Irlandan bezala langabezia EB-27an baino 4,3 puntu altuagoa da; hau da, 10,2 puntu Espainiaren azpitik eta 4,5 Frantziaren gainetik.

INEK Hegoaldeko lurraldeetarako argitara berri dituen datuen arabera, 2012 urteko laugarren hiruhilabeteko langabezia tasa 15,7 puntukoa izan da, azken urteetan ezagutzen den langabezia altuena. Laugarren hiruhilabeteko datu honek 2012 urteko langabeziaren argazki osoa egitea ahalbidetzen duelarik, Euskal Herriak 2012 urtean 14,8ko langabezi tasa izan du. Tasa altu honek laburbiltzen du gure lurraldeko langabeziaren urteko argazkia.

Laugarren hiruhilabete honetan langabezia tasa bereziki altua izan da Araban (18,1), urte amaiera ezin okerragoa herrialde honetarako. Bestalde, Bizkaiak zein Nafarroa Garaiak (17,1 kasu bietan) Euskal Herriko batz besteko tasatik nabarmen urruntzen dira. 2012 urte osoko datuei erreparatuz gero, Nafarroa Garaia da (16,2) langabezia datu altuenak izan dituen herrialdea. Beste muturrean, azkenaldian ohikoa izaten ari den moduan, Iparraldeko lurraldeak ditugu. Nolanahi ere, antzematen da urte osoan zehar langabezia gora egiten ari dela Iparraldean ere, Hego-Ipar ardatzen arteko kontrastea apurtzen ez duena, halere.

Nazioarte mailari dagokionez, 2012 urteko Euskal Herriko langabezia (14,8) Irlandaren parean dago. EUSTATEko datuei erreparatuz gero, ostera, Euskal Herria Bulgaria (12,2) eta Lituania (12,9) artean kokatzen da. Edonola ere, kasu bietan EB15 (10,6) zein EB27 (10,5) gero eta tarte handiagorekin gaintitzen ditu Euskal Herriak. Bestalde, gure lurraldean Espainian baino 10,2 puntu txikiagoa da langabezia, baina Frantzian baino 4,5 puntu altuagoa. Herrialde batzuetarako datu definitiboan zai, 2012 urtean soilik Euskal Herrian baino gehiago hazi da langabezia Grezia, Zipren, Katalunian, Espainian eta Portugalean, INEko datuen arabera.



Langabezia tasa eta langabe kopurua. Euskal Herria eta bere lurraldeak, 2012 urtea.								
		2012-I	2012-II	2012-III	2012-IV	2012	2012-IV	2012
EAE	EUSTAT	12,1	11,9	11,8	12,8	12,1	130.200	124.800
	INE	13,6	14,6	15,5	15,9	14,9	162.800	152.950
Araba	EUSTAT	6,8	9,9	10,1	11,7	9,6	17.700	14.900
	INE	15,0	14,8	14,1	18,3	15,5	29.000	24.575
Bizkaia	EUSTAT	15,2	14,3	14,2	15,0	14,7	81.100	80.500
	INE	14,8	15,8	17,4	17,1	16,3	94.300	88.675
Gipuzkoa	EUSTAT	9,4	8,6	8,5	9,7	9,0	31.300	29.500
	INE	10,9	12,5	12,8	12,6	12,2	39.500	39.700
Nafarroa Garaia	INE	16,3	16,4	15,0	17,1	16,2	52.600	50.025
Iparraldea	INSEE	10,3	10,6	10,7	10,7	10,6	14.155	13.992
Lapurdi	INSEE	-	-	-	-	-	-	-
Nafarroa Beherea	INSEE	-	-	-	-	-	-	-
Zuberoa	INSEE	-	-	-	-	-	-	-
Euskal Herria	EUSTAT	12,8	12,7	12,3	13,5	12,8	196.855	188.917
	INE	13,8	14,6	14,9	15,7	14,8	229.555	216.967

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE.

Oharra: Iparraldeko datua, behin behineko estimazioa datu ofizialen zain.

Langabezia tasa eta langabe kopurua. Euskal Herria eta bere lurraldeak, 2007/2012 epea.								
		2007	2008	2009	2010	2011	2012	2012
EAE	EUSTAT	3,3	3,8	8,1	9,2	10,8	12,1	124.800
	INE	6,1	6,4	11,0	10,5	12,0	14,9	152.950
Araba	EUSTAT	2,3	2,7	9,9	10,0	7,9	9,6	14.900
	INE	4,9	4,8	11,3	11,1	10,3	15,5	24.575
Bizkaia	EUSTAT	4,0	4,3	8,6	10,0	13,3	14,7	80.500
	INE	7,2	7,7	12,3	11,9	13,8	16,3	88.675
Gipuzkoa	EUSTAT	2,6	3,3	6,5	7,4	8,2	9,0	29.500
	INE	4,9	5,3	9,0	8,1	9,9	12,2	39.700
Nafarroa Garaia	INE	4,8	6,7	10,9	11,8	12,9	16,2	50.025
Iparraldea	INSEE	10,1	9,9	9,9	10,0	9,9	10,6	13.992
Lapurdi	INSEE	10,9	10,7	10,7	-	-	-	-
Nafarroa Beherea	INSEE	5,4	5,4	5,5	-	-	-	-
Zuberoa	INSEE	6,4	6,4	6,1	-	-	-	-
Euskal Herria	EUSTAT	4,2	4,9	8,9	9,8	11,2	12,8	188.917
	INE	6,2	6,8	10,9	10,7	12,0	14,8	216.967

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE.

Oharra: Iparraldeko datua, behin behineko estimazioa datu ofizialen zain.





	2009	2010	2011	2012-I	2012-II	2012-III	2012-IV	2012
Espainia	18,0	20,1	21,7	24,4	24,6	25,0	26,0	25,0
Grezia	9,5	12,6	17,7	21,8	23,9	25,6	25,6	24,2
Katalunia	16,3	17,8	19,3	22,2	22,0	22,6	23,9	22,7
Kroazia	9,1	11,8	13,5	14,9	15,1	16,1	17,2	15,8
Portugal	10,6	12,0	12,9	14,9	15,6	16,1	16,3	15,7
Irlanda	12,0	13,9	14,7	15,1	14,8	14,8	14,7	14,8
Euskal Herria-INE	11,0	10,7	12,0	13,8	14,6	14,9	15,7	14,8
Letonia	18,2	19,8	16,2	15,4	15,7	14,1	-	-
Eslovakia	12,1	14,5	13,6	13,6	13,9	14,1	14,4	14,0
Lituania	13,6	18,0	15,3	13,6	13,0	12,6	12,5	12,9
Euskal Herria-EUSTAT	8,9	9,8	11,2	12,8	12,7	12,3	13,5	12,8
Bulgaria	6,8	10,3	11,3	12,0	12,2	12,3	12,4	12,2
Zipre	5,5	6,4	7,9	10,3	11,5	12,5	13,9	12,0
Hungaria	10,0	11,2	10,9	11,1	11,0	10,7	10,9	10,9
EB-15	9,2	9,6	9,7	10,3	10,6	10,7	11,0	10,6
Italia	7,8	8,4	8,4	10,0	10,5	10,6	11,1	10,6
EB-27	9,0	9,7	9,6	10,2	10,4	10,5	10,7	10,5
Frantzia	9,5	9,7	9,6	10,0	10,2	10,3	10,5	10,2
Polonia	8,1	9,6	9,6	9,9	10,0	10,3	10,6	10,2
Estonia	13,8	16,9	12,5	10,7	10,0	9,9	9,5	10,0
Eslovenia	5,9	7,3	8,2	8,2	8,7	9,4	9,7	9,0
Turkia	12,5	10,7	8,8	8,1	8,0	8,1	-	-
Erresuma Batua	7,6	7,8	8,0	8,1	7,9	7,8	-	-
Eskozia	6,9	8,2	7,9	8,2	7,5	7,2	7,8	-
Finlandia	8,2	8,4	7,8	7,6	7,7	7,8	7,7	7,7
Danimarka	6,0	7,5	7,6	7,5	7,9	7,5	7,8	7,7
Suedia	8,3	8,4	7,5	7,5	7,6	7,7	7,9	7,7
Belgika	7,9	8,3	7,2	7,1	7,5	7,4	7,4	7,4
Errumania	6,9	7,3	7,4	7,2	7,2	7,0	6,8	7,1
Txekiar Errep.	6,7	7,3	6,7	6,8	6,8	7,0	7,4	7,0
Malta	6,9	6,9	6,5	6,1	6,5	6,7	6,9	6,5
Islandia	7,2	7,6	7,1	6,5	6,2	5,7	5,4	5,9
Alemania	7,8	7,1	5,9	5,6	5,5	5,5	5,4	5,5
Herbehereak	3,7	4,5	4,4	5,0	5,1	5,3	5,6	5,3
Luxenburgo	5,1	4,6	4,8	4,9	5,0	5,1	5,1	5,0
Austria	4,8	4,4	4,2	4,1	4,3	4,5	4,5	4,3
Flandria	4,9	5,1	4,3	4,2	4,3	4,2	-	-
Norvegia	3,2	3,6	3,3	3,2	3,0	3,0	-	-

Iturria: EUSTAT, INE, INSEE, EUROSTAT, Erresuma Batuko Estatistika Bulego Nazionala eta Belgikako Estatistiken Zuzendaritza Orokorra.

Oharra: 2012 urteko eta 2012-IV hiruhileko datuak behin behinekoak dira Finlandia, Herbehereak, Katalunia eta Espainiaren kasuetan salbuestuz.

